

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2023ko otsailak 24 · 1260 zenbakia

INGURU BIZIA EREITEKO HAZIA



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Ekatu hemen
zune mugikorrarekin
eta iritxi
gure webgunera



•Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

Plaza Barria, 2, 29
Telf.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2
Tel. 943 20 41 94
Fax. 943 82 00 06
egurenyasociados@gmail.com

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

Euskararen sozializazioa eta transmisioa

XIII. MINTEGIA



Martxoaren 15ean

08:45-13:45

ARMERIA Eskolako areto nagusian

GORDE DATA!

**Izen-ematea ZABALIK
martxoaren 1etik aurrera**

Aurrez aurre zein streaming
bidez jarraitzeko aukera

www.etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

943 20 09 18

 **eta kitto!**
euskara elkartea



Jarraitu gaitzazu!



Jolasgune berria dugu herrian: Estixa parkea. Arrateko bidean dago, herrigunetik hurbil, eta errepide alboan egon arren, naturan murgiltzen laguntzen du. Natur elementuekin egina dago eta egurra erabili dute batez ere. Bertan, rokodromoa dago, baita intsektuetako hotela ere, eta erronka ezberdinak proposatzen ditu jolasen bitartez. Gainera, bertatik ibilaldiak egiteko aukera ematen du, eta landareen eta animalien inguruko informazioa jasotzen duten panelak daude.

Demaseko giroa izan dugu aratosteetan eta eibartarrok ederki aprobetxatu ditugu egun hauek herriari kolorea eman eta ondo pasatzeko. Aratosteetan inguruan zenbait bideo egin ditugu eta honako honetan egun horietako laburpena egin dugu.

@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILA
...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA
Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose
Luis Gorostegi, Silbia Hernandez
eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Belen Ulazia
TELEFONOA
943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA
Eibarko Baso Biziak
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado
TIRADA
7.800 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Eskerrik asko Eguneko Zentroko beharginei

Nire eta ingurukoen eskerrik beroenak transmititu nahi dizkizuet Gerontologikoko Eguneko Zentroko beharginoi eskaini diguzuen tratuaengatik. Oso pozik gaude bertan lanean zaudetenok zelan atenditu gaituzuen ikusita. Horregatik, legezkoa iruditzen zaigu gurekin izan duzuen atentzia eta erakutsi diguzuen gertutasuna eskertzea.

Goretti Larrañaga

Astean esanak



Alokairuan dagoenari zuzenean 300 euroko laguntza ematea, azkenean, etxebizitzaren jabearen poltsikora doan txeke zuri bat da. Gainera, alokairuko etxeen prezioak are gehiago igo ditzake neurri horrek. Eskubidearen subjektua bizikidetzaren unitatea denez, ez da pausorik ematen inoren emantzipazioa bermatzeko. Laguntzek indibidualak behar dute eta, horretarako, oinarrizko errentaren neurria askoz interesgarriagoa da, subjektua pertsona delako, eta laguntzak indibidualak eta unibertslak direlako.

JULEN BOLLAIN, ekonomilaria

Astean 55 ordutik gora lan egiteak lotura hertsia du iktusekin eta arazo kardiobaskularrekin. Gainera, hainbeste ordulan egitean, produktibitatea jaitsi egiten da. Beraz, osasungarriena astean gehienez 45 ordu lan egitea izango litzateke eta, hobeki, 35 eta 40 ordu artean. Bestalde, etxetik lan egiteak badu lanaldi luzeagoak egiteko arriskua. Covid-19aren pandemian jendea etxetik lan egiten hasi zenean, %10 egin zuten gora langileen asteko lanorduek; pandemiaren aurretik astean 50 ordu lan egiten zituen norbaitek 60 ordutik gora egiten zituen konfinamenduan.

FRANK PEGA, OMEko teknikari ofiziala

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ONDOEZ → Osasunean gaitzen bat. "Oso moteldu naiz ondoez honekin".

Zorabioa, konortea galdu. "Lanian diharduala, ondoeza egin eta lurrera jausi da".

ONDOEZIK (IBILLI/EGON) → Osasunez gaizki ibili / egon. "Aspaldixan ondoezik dabil, ezer onik egitten ez detsala".

1961



Izotz eta gaseosa banatzailea

Plazaolaren argazkian ageri den Telleria abizeneko gizon hau batetik bestera ibiltzen zen, izotza eta gaseosak banatzen, zaldiak tiratutako gurdiaekin. Biltegi edo establezimentua Arragueta zeharreen zuen.

Farmaziak

BARIXAKUA 24
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 26
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
ASTELEHENA 27
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
MARTITZENA 28
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 1
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUENA 2
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
BARIXAKUA 3
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)

GAUEZ BETI, 2023an,
Castaño (J. Etxebarria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Daniel Bernardez Cararra**. 59 urte. 2023-02-11.
- **Pedro Vegas Bermejo**. 70 urte. 2023-02-14.
- **Jose Luis Alberdi Aldazabal**. 90 urte. 2023-02-16.
- **Blanca Cano Martinez**. 93 urte. 2023-02-16.
- **Jose Maria Arana Arrate**. 83 urte. 2023-02-19.
- **Maria Teresa Larrañaga Balzola**. 78 urte. 2023-02-20.

Jaiotakoak

- **Mikel Agirrebeña Alberdi**. 2023-02-07.
- **Ninbe Iriondo Alkorta**. 2023-02-08.
- **Ion Loidi Revuelta**. 2023-02-10.



Euskadirako zikloturismo estrategia eta ibilbide berriak aurkeztu dituzte Museoan

Euskadiko Zikloturismo Estrategia eta ibilbide berriak aurkeztu zituzten astelehenean Eibarren, “Euskadi Cycling” proiektuaren barruan. Armagintzaren Museoan egin zen ekitaldia eta bertan egon ziren Javier Hurtado Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua, Jon Iraola Eibarko alkatea eta Joseba Beloki txirrindularia. Sailburuaren berbetan, Tourra Euskaditik irteateak bultzada handia emango dio “urteetan lanean aritu garen zerbaiti: Euskadi erreferentziazko

helmuga zikloturista gisa finkatzea. Euskadik produktu zikloturista sendo bat garatzeko faktoreak biltzen ditu: tradizio luzea, sarbide onak, kirola egiteko azpiegitura onak, hotelen edukiera eta askotariko eskaintza, eskaintza osagarri erakargarria eta kalitatezkoa, nazioarteko ekitaldiak eta kirol-komunitate aktibo eta kohesionatua”. Estrategia aurkeztu eta gero, Joseba Beloki txirrindulariak “Euskadi Cycling”-i atxikitako errepideko ibilbide berriak azaldu zituen.

Astelehenean hasiko dira Saratsuegiko skate-parkea berritzeko lanak

Udalak jakinarazi duenez, Saratsuegin dagoen skate-pista berritzeko lanak datorren astelehenean hasiko dira eta bi hilabete iraungo dute. Obrak Roig i Fills Associats SA enpresak egingo ditu, lanak 217.376 eurotan adjudikatu eta gero. Proiektuari aplikatuko zaion diseinu berria Daniel Yábar Ramos arkitektoak egin du, skate-parkea

eraberritu beharra zegoela eta, Eibarrek skate, BMX eta roller bezalako hiri-kiroletarako instalazio baten premia zuela planteatu eta gero. Ezaugarri teknikoek gain, skate-parkeetako adituen irizpideak eta halako kirol-modalitateetan aritzen direnen bestelako proposamenak ere jaso dituzte egitasmoan.

16 garaje-plaza ipini dira salgai Asola-Igartzan

Amaña auzoan, Asola-Igartzako babes ofizialeko etxebizitzaren erakinean bere jabetzako 16 garaje-plaza salgai jartzeko prozedura hasi du Udalak. Izena emateko epea martxoaren 17an amaituko da eta auzoan erroldatutako biztanleek bakarrik dute horretarako aukera. Salgai jarriko diren garajeak -1 sotoan (10 plaza) eta -2 sotoan daude (6 plaza). Ezaugarriak dagokienez, haietako 12k 18,65 eta 18,93 m² arteko azalera dute, eta beste 4ek 14,08 eta 14,88 m² artekoa. Handienak 10.672,20 eurotan jarri dira salgai (BEZa barne) eta besteak 8.693,85 eurotan (BEZa barne). Eskabideak modu elektronikoan aurkeztu behar dira, Udalaren web-orrian (www.eibar.eus) edo Pegoraren bulegoetan.



Martxoaren 11n ospatuko ditu Ernaiak 10 urteak

Ernai gazte abertzaleen erakundeak 10 urte beteko dituela ospatzeko egitaraua prestatu dute martxoaren 11rako: Errebalek ekitaldi politikorekin ekingo diote egunari (13:00ean). Jarraian, trikipotea egingo dute eta 14:30ean hasiko da bazkaria. Ondoren, 17:30ean Gazte Olinpiadak hasiko dira, Untzagan, eta horren ostean hasiko da karropotea, 19:00etan. Bazkarian eta jokoetan parte hartzeko izena eman behar da.



Merkealdien azokara eramango dute Euskeraz Primeran! kanpaina

Eibar Merkataritza Gune Irekiak eta Udalak elkarlanean antolatzen duten neguko merkealdien azoka datorren astean izango da, eguaztenetik barixakura, Toribio Etxebarria kalean eta, beti bezala, ...eta kitto! Euskara Elkarte bertan egongo da, Euskeraz Primeran! kanpainarekin. Hiru egunetan ipiniko dute mahaia, 10:30etik 12:30era, erosketak egiterako orduan ere herritarrak euskeraz egitera animatzeko. Gerturatzen direnen artean EMGI-k emandako 100 euroko erosketa-txartela zozketatuko dute azken egunean.



Eibarko sozialisten 125 urteko historia biltzen duen erakusketa zabaldu dute

Eibarko sozialisten taldea eratu zela 125 urte beteko dira aurten eta, hori ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Ramón Rubial Fundazioarekin elkarlanean. Egitaraua aste honetan hasi da, martitzenean inauguratu zen erakusketarekin: 125 urteko historia laburbiltzen duen erakusketa Untzagako Herriaren Etxeko areto nagusian (2. solairuan) ikus daiteke eta, irekiera ekitaldian, Carmen G. Guerra erakusketaren komisarioa, Ana Te-

lleria Eibarko PSE-EEko idazkari nagusia, Jon Iraola Eibarko alkatea eta Eneko Andueza Euskal Sozialisten idazkari nagusia egon ziren.

Ekitaldi nagusia, bestalde, martxoaren 25ean izango da, Santos Cerdán PSOeko Zuzendaritza Federaleko antolakuntza idazkariaren parte-hartzearekin eta apirilaren 20an dokumentala aurkeztuko du alkateak, Armeria Eskolako areto nagusian. Ekitaldi guztiak irekiak dira eta guztiak gonbidatuta daude.



• tartak
• enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



PUBLI RESA
objeto publicitario

www.publiresa.com

publiresa@publiresa.com

943 701 497 / 615 799 419

Armagin, 3-5 behea

merchandising

sonigrafia

lanerako erropa

ek!

Zure publizitatea
herriko aldizkarian

688 621 535

publizitatea@etakitto.eus



LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak etxera



Teilatu eta fatxedetan eguzki-plakak jartzeko irizpideak arautu ditu Udalak

Udalak irizpide batzuk ezarri ditu titulartasun pribatuko eraikinetan eguzki-energia fotovoltaikoa eguzki-plakenez bidez hartzeko eta aprobetxatzeko sistemak jartzeko, bai eraikinen teilatu edo estalki inklinatu edo lauei dagokienez, bai fatxadetan plakak jartzeari dagokionez. Proposamen honen bidez irizpide horiek arautu nahi dituzte, lizentziak emateko orduan gauzak argitu eta errazteko. Azken aldi

honetan, herritarrek eta komunitateek eguzki-plakak jartzeko egin dituzten eskaerak ugaritu egin direnez, arautzea erabaki dute. Asmo horrekin, Hirigintza saileko teknikariek proposamen bat egin zuten eta, Hirigintza Batzordean aztertu ondoren, udal-taldeen ekarpenekin osatu edo hobetu da. Adostutako agiri-dokumentua gaur bertan berretsiko du udaleko Gobernu Batzarrek.

Jabetze Eskolak udaberrirako antolatu dituen ikastaroetarako izen-ematea

Jabetze Eskolako ikastaro berrien izen-emate epea martxoaren 1ean zabalduko da eta martxoaren 31ra arte egongo da aurrematrikula egiteko aukera. Prestatu duten eskaintzan honako ikastaro eta tailerrak daude: “Bizitzaren korapiloak askatzen: Makrame-Tailerra”, “Jolasetik eta barretik geure burua ahalduntzen”, “Joskintza eraldatzailea”, “Osasuna plazerra badelako, elikadura osasuntsuaz gozatu”, “Bi-

zitarako Mindfulness: Ahalduntze-tresna”, “Inguruko landareak ezagutu eta erabiliz gure mundua handitzen” eta “Gure barne-konfiantza sendotuz”. Izena emateko zein ikastaro bakoitzari buruzko informazio gehiago eskuratzeko Eibarko Udalaren webgunera jo daiteke edo, bestela, Andretxean galdetu (943 543 938 / 688 853 440 zenbakietara deituta edo andreteaxa@eibar.eus helbidera idatzita).



Aratosteak Goi Argira bueltatu dira

Pandemiaren eraginez hiru urte Aratosteak ospatu barik pasatu eta gero, Goi Argi emakumeen elkarte-koek berriz koko-jantzeko aukera izan dute aurten eta, ohiturari jarraituta, Aratoste Martitzenean egin zuten jaia.



Antzerkira joateko sarrera bikoitzak zozketatuko dira

Eibarko Dendarien Elkarteak “Tokikoa sustatu eta antzerki-az gozatu” kanpaina abiatu du. Martxoaren 12ra bitartean, elkarteko saltokietan erosteagatik, Antzerki Jardunaldietarako zozketatuko dituzten sarrera bikoitzeko bat lor daiteke. Zozketan parte hartzeko bi modu daude: “15 sarrera bikoitz Eibar Txartelaren bidez zozketatuko dira, Rural Kutxa datafonoaren bitartez erosketa egiten den unean. Eta beste bederati sarrera bikoitz, erosketa-tiketa dendan dagoen kutxan utzita”. Zozketa martxoaren 15ean egingo da.



IOKIN ELORTZA

Medikamentu falta

Aspalditik nabaria da farmazietan daukagun medikamentuen falta; seguruenik zuetako askok ere nabarituko zenuten.

Ohiko botika behin eta berriz ezin duzunean jaso, zer demontre gertatzen ari den galdetzen diguzue, eta ez zaigu erraza egiten momentuan azaltzea. Horregatik, oraingoan gabezi horien zergatia azaltzen saiatuko naiz.

Egia da faktore ugari daudela, baina arrazoi nagusi bat esan beharko banu, medikamentuen prezio baxua dela esango nuke. Bai, medikamentuak gaur egun merkeegiak dira hemen. Hori azaltzen saiatuko naiz.

Zer ari da gertatzen gaur egun elikagaiekin? Lehengaiak igo dira, garraioa, energia... Dena doa gora eta, ondorioz, elikagaien prezioa asko igo da, eresketa egiten dugun bakoitzean nabaritzen dugu.

Ba berdina gertatzen ari da botikekin, lehengaiak igo dira, garraioa, energia.... Dena doa gora, baina medikamentuen prezioa ez. Prezio finkatua dutenez, ezin dira igo. Eta hor dago arazoa.

Gaur egun, munduko medikamentuen fabrikazio ia osoa Indian eta Txinan dago, eta horiei ez zaie interesatzen medikamentuak guri saltzea, merkeegi erosten ditugulako. Eurentzat ez da errentagarria eta, ondorioz, produkzioa gehiago ordaintzen dieten beste merkatu batzuetara bideratzen ari dira.

Eta egoera hobeto ulertzeko pare bat datu emango ditut.

Botika generikoen erdiak 1,60 euro baino gutxiago balio dute. Farmazian saltzen ditugun gozokiak baino gutxiago.

Eta badakizue noiz izan zen botikak prezioz igo ziren azken aldia? 1983. urtean. Orduan, 120 pezeta baino gutxiago balio zuten botikek %25eko igoera izan zuten. Ordundik ezer ez. Botikak etengabe jaisten joan dira, gaur egun horietako asko gozokiak baino merkeagoak izan arte. Eta pena da, horrek guztiak botika berriak sortzeko behar diren inbertsio handietan ere eragiten duelako. Eta hori funtsezkoa da.

“Dena doa gora, baina medikamentuen prezioa ez. Prezio finkatua dutenez, ezin dira igo. Eta hor dago arazoa”

Aratosteak primeran ospatu ditugu

Eguraldia lagun, pandemia osteko lehen Aratosteak izan dira aurtengoak eta ondo baino hobeto ospatu ditugu. Eguen Zuri egunean ikastetxeek egindako jaialdi eta kalejirek kolorez bete zituzten herriko kaleak eta Barixaku Erregularrean, berriz, Hungariako kaldereroen kantu eta dantzek ederto alaitu zuten arratsalde-iluntzea. Zapatuan kuadrillek hartu zuten jaien lekukoa, eguerditik hasita gaueraino, eta Udalak antolatutako kalejira-lehiaketak alaitasunez betetako irudiak laga zizkigun. Domeka goizean, Usartza txistulari taldekoen musikarekin esnatu ginen eta musikaz betetako arratsaldea izan genuen, Errebal Plazan egindako Playback lehiaketari eta Arno DJ-aren saioari esker. Eta, jaiak agurtzeko, martitzenean sardina txikiaren entierria egin zen.



Argazki bildumak





Zaporeaki laguntzeko erronka Debabarrena osora zabaldu dute



Orain dela bost urte Ermuko eta Eibarko sukaldari batzuek hasitako erronka eskualde osora zabalduko dute aurten eta, horrela, Debabarreneko herri guztietan egongo da Zaporeak elkarteak Greziako Lesbos uhartean dauden errefuxiatuen alde egiten duen lan solidarioan laguntzeko aukera. Gainera, erronka hasi aurreko egunetan, elikagaiak bilduko dituzte eta rifak erosteko aukera egongo da.

Zaporeak elkarteak 1.600 otordu ematen ditu egunero Lesbos uharteko errefuxiatuen esparruan eta, horretarako, erakundeen aldetik jasotzen duen laguntzaz gain, herritarren ekarpenak berebizikoak dira. Zaporeak proiektua hainbat sukaldariren eskutik jarri zen martxan, eta eskualdean sukaldari solidarioak ditugula-eta, 2019an ekimen berezia abiatu zuten Ermuan eta Eibarren errefuxiatuei laguntzeko: “Baietz bakoitzak bere herrian 1.000 kilo janari bildu”. Esan eta egin, eta, gainera, rifak saldu zituzten eta paella erraldoia egin zen Ermuan. 4.000 euro inguru biltzea lortu zuten.

Herritarren erantzun ona ikusita, ekimena indarra hartzen joan da eta jasotako laguntza eta elikagai-kopurua ere igotzen joan da urtero. Iaz, 6.200 euro bildu zituzten; aurten, kopuru hori gainditzea da erronka. Horretarako, hiru aukera ematen dituzte ekimenaren sustatzaileek: rifak erostea, elikagaiak

ematea eta martxoaren 25ean Ermuan egingo den ekimenean parte hartzea.

Rifak salgai

Rifak salgai jarri dituzte dagoeneko, euro baten, eta irabazleek, eskualdeko jatetxe batean afaria irabazteaz gain, Eibarko Artisten Elkarteko kideek emandako artelan bana eramango dute etxera. Afariak Ermuko Amatxi, Sagarra eta Mendiolan; Eibarko Casino, Kontent eta Baratzen; Elgoibar-ko Belaustegin; eta Itziarko Salegi jatetxeetan emango dira. Gainera, Eusko Label eta KMO hurbileko produktuez osatutako otarra ere zozketatuko da.

Janari-bilketa

Zaporeaki laguntzeko beste modu bat elikagaiak ematea da. Horrela, martxoaren 20tik 24ra, Debabarreneko herri bakoitzean elikagai jakin bat jasoko dute, lekaleak batik bat. “Erraz egosten diren elikagaiak batzen ditugu, jende askori eman

Informazio gehiago
Zaporeaken webgunean:





Zaporeak elkarteari laguntzeko erronka antolatu eta laguntza eskaini duen jendea. SILBIA HERNANDEZ

behar baitzaio jaten”, diote ekimenaren antolatzaileek.

Ermuan, Soraluzen eta Deban arroz luzea bilduko dute, Mallabian eta Mendaron hodi erako makarroia, Eibarren dilista pardina, Elgoibarren garbantzu pedrosillanoa eta Mutrikun, berritasun bezala, arrain-kontserbak. Oraindik ez dute zehaztu herri bakoitzeko elikagaiak zein tokitan jasoko dituzten, martxoaren hasieran zehaztuko baitituzte bilketa-puntuak.

Tupper solidarioa

Erronka honekin hasi zirenetik gertatu ohi den bezala, tupper solidarioak banatzen emango diote amaiera ekimenari eta aurten Ermuan egingo da ekintza, martxoaren 25ean. “Ekimen hau garrantzitsua da, errefuxiatu esparruetan zer jaten duten ikusteko balio duela. Ume askok galdetzen dute ia zer gertatzen ari den esparruetan”, azaltzen dute antolatzaileek. Izan ere, tuperrak errefuxiatu esparruetan banatzen direnen antzekoak

dira. Gainera, errefuxiatuen egoera hobeto ezagutzeko, Lesbosen gertatzen ari den errealitatea erakutsiko dute Ermuko kaleetan jarriko dituzten bideo batzuen bitartez.

Bazkide bila

Debabarrenean egingo den ekintza hau garrantzitsua da Zaporeakentzat, baina edozein laguntza da gutxi, eta elkarteari laguntzeko bazkide berrien bila dabilta. Beraz, kanpaina abiatu dute asmo horrekin. Bakoitzak nahi edo ahal duen kopuruarekin lagundu dezakeela nabarmendu dute, eta aportazio guztiak ongietorriak izango dira. Gainera, euro baten truke bazkari duin bat eman dezaketela gogorazi nahi diote jendeari.

Bazkide egiteko bi aukera daude: banku transferentzia bitartez, aldizkako transferentzia egiteko agindua emanda (ES14 2095 5092 00 9115250322 edo ES71 3035 0103 88 1030035880), edo, bestela, www.zaporeak.eus webgurearen bitartez.

Eskualdeko herri bakoitzean elikagai jakin bat jasoko dute martxoaren 20tik 24ra

Martxoaren 25ean tupper solidarioak banatuko dira Ermuan. Gainera, afariak zozketatuko dira rifen bitartez

Artea eta komunikazioa basoari buruz hausnartzeko

EHUko Arte ederretako irakasleek, ikasleek, ikerlariek eta langileek osatzen duten Artekom ekimenak 'Bizia zaintzen. Basoa – biodibertsitatea – bizitza' izeneko ekimena eskainiko du herrian. Basoari buruz hausnartzea dute helburu eta, horretarako, artea eta komunikazioa ardatz izanda, erakusketa, mahai-ingurua eta eztabaida-hitzaldia antolatu dituzte.

Informazio
gehiago:



Gaur bertan emango zaie hasiera Artekomek antolatutako ekintzei, 19:00etan, Portalean martxoaren 26ra arte egongo den erakusketarekin. “Erakusketako piezak Eibarrerako propio sortu ditugu”, esan digu Carmen Marin Ruiz Artekomeko koordinatzaileak. “Orain arteko erakusketetan ingurumenaren trantsizioaren arazoa landu izan dugu eta artista bakoitzak bere begirada eskaini izan du, baina oraingoan ezberdin jokatu nahi izan dugu. Horrela, jendearengana hobeto heltzeko, erakusketa egingo den tokiaren arazoan inguruan hausnartu nahi izan dugu. Eibarren, adibidez, Zaldibarko zabortegiarekin arazoa egon da eta hondakinen gaia oso garrantzitsua da, baina Eibarko eragileekin berbetan, basoen inguruan jardutea erabaki dugu, basozaleen taldea dagoelako. Basoa ez da toki eder eta berdea bakarrik, bizia sostengatzen duen gunea baizik”, argitu digu.

Gauzak horrela, basoari buruzko hausnartzea proposatzen duten piezen eta esku-hartze artistikoen erakusketa kolektiboa hasiko da gaur. Susana Jodra, Mikel Arce, Jose Angel Lasas, Josu Rekalde, Pilar Soberon, Mikel

Garate, Josemari Herrera, Cristina Miranda, Nerea Legarreta, Lidia Rekarorri eta Miriam Loidi artisten lanak egongo dira ikusgai eta, artearen hizkuntzaren bidez, gaiaren inguruko ikuspegi ezberdinak planteatzen dituzte. “Artea ingurugiroaren arazoari begira jartzeko abiatu genuen proiektua. Arteak joera intimista eta autoerreferentziala du, baina gizatasunaren momentu honetan zer egiten ari garen eta zer egin behar dugun pentsatu beharko genuke”, koordinatzailearen ustez. “Beraz, Arte Ederren fakultatean foroa sortzeko ideia izan genuen, gai honen inguruan lan egin nahi duten ikasleek gaian lanean dabilen jendea aurki dezaten. Horrela, bidea erakutsi eta gai hauei buruz berba egiteko estrategia artistiko batzuk beste batzuk baino aproposagoak direla azaltzen diegu. Koherentzia gehiagorekin zorrotzak izaten, ez gatzatzen, gauzak berrerabiltzen eta arrasto ekologikorik ez lagatzen saiatzen gara”, gehitzen du Carmenek.

Mahai-ingurua

Martxoaren 15ean, 19:00etan, ‘Basoa. Artea eta ekologiaren ikuspuntutik’ izeneko mahai-



Pilar Soberon artistak erakusketarako prestatu duen lana: 'Haritz'.. ARTEKOM

ingurua eskainiko dute Portalean, eta Mikel Jauregi Oregi Eibarko Baso Biziak elkartereko kideak, Mikel Garate Arakama artista eta EHUko irakasleak eta Jose Angel Lasa Garicano eskultorea eta EHU irakasleak egingo dute berba. “20 minutu inguruko hitzaldia eskainiko du bakoitzak”, Marin Ruizen berbetan.

Koordinatzaileak azaldu digunez, “Mikel Jauregik naturzaleen eta basoen aditu baten ikuspuntua emango du”. Gero, Mikel Garatek egingo du berba. “Berak artea eta bizitza uztartzen dituen bizi-proiektua du martxan. Hau da, etxebizitza mendian du eta bertan zegoen eukalipto guztia kentzen dihardu bertako zuhaitzak landatzeko. Epe ertain-luzerako proiektua da eta, artearen ikuspuntutik lan egiteko balio izateaz gain, bizitzeko balio dio”. Azkenik, Lasari buruz egin digu berba Marin Ruizek: “Oso eskultore ezaguna da eta basoarekin dituen bizipenen inguruan egingo digu berba. Hori bai, berak ez dio basoa deitzen, mendia baizik. Mendia zer den, mendian bizi direnentzat nolako esanahia duen... Mendiak bere ibilbide profesionala markatu du. Gainera, Lasak ez du egurrarekin lan egiten,

>>> "Artea ingurugiroaren arazoari begira jartzeko abiatu genuen proiektua"

>>> "Basoa ez da toki eder eta berdea bakarrik, bizia sostengatzen duen gunea baizik"

ezpalarekin baizik. Hau da, bere lanak egiteko ez du ezer mozten, eroritako zatiak erabiltzen ditu. Adibidez, ekaitz baten ostean eroritako zuhaitzak. Beti joaten da mendira materialen bila, beste material batzuk ere erabili arren”.

Eztabaida-hitzaldia

Martxoaren 22an, bestetik, Julia Marti Comas feministak eta Politika Zientzietan



Erakusketako pieza bat.. ARTEKOM

doktoreak eztabaida-hitzaldia eskainiko du 'Aginte korporatiboen aurkako ekofeminismoaren gidaliburua' izenburuarekin, 19:00etan, Portalean. "Basoak bizitzaren sostengatzaile moduan duen alderdiari garrantzia eman nahi genion eta mugimendu ekofeministaren interesekin lotura zuzena du, bizitza ekintza guztien erdigunean jarri behar dugulako", azaldu digu Marin Ruizek. "Korporazio handiei aurre egin dien mugimendu ekofeministak ezagutu ditugu munduko hainbat tokitan eta Marti Comasek horren inguruko liburua idatzi du".

Arte Ederretako fakultateko kideez gain, Komunikazio fakultateko kide batzuk ere parte hartzen dute Artekomen eta horietako batek, Iñaki Barcenasek, bideratuko du saioa.

Hitzaldiaz gain, antolatzaileek herriko mugimendu feministaren lekukotzak eta ikuspuntuak jaso nahi ditu eta euren parte-hartzea bultzatzeko prest agertu dira. "Eibarko mugimendu feministak demaseko tradizioa du eta oso finkatuta dago herrian", esan digu koordinatzaileak.

MIKEL JAUREGI •
Eibarko Baso Biziak

“Natura kontserbatzeko guztiok batera egin behar dugu arraun”

Nolakoa da gaur egun Eibar inguruko basoen egoera?

Desberdintze aldera, Eibarren landaketak dira nagusi, hau da, monolaborantza. Baso eremu txiki bakar batzuk baditugu isolatuta. Horietako bat Abontza erreka ertzetan dago, Legarre azpitik Urkorantz abiatzen dena.

Zer egin beharko litzateke egoera hobetzeko?

Kontuan izan behar da baso batek aniztasun ekologiko handia izateko nolabaiteko hedadura hartu behar duela. Ezinbestekoa dugu lur horiek arduraz kudeatzea. Hedadura zabaltzeko lurrak erosi edo kustodian hartzea izango litzateke irtenbidea. Basoekin lotuta badago arduratzen gaituen beste gai garrantzitsu bat ere: hain gaizki tratatu dugun Ego ibaia.

Nolakoa da urte hauetan egin duzuen lanaren balorazioa?

Oso balorazio positiboa egiten dugu. Nork esango luke, elkar-lanari esker, gaur egun dugun egitura eta egiten ari garen ekin-



tzak egin ahal izango genituela? Landaketak, mendi garbiketak, hitzaldiak, lur kustodiak, irteera gidatuak eta kontzientziario kanpainak egin ditugu, besteak beste.

Etorkizuna beste modu baten ikusten duzue?

Inflexio-une baten aurrean gaude, naturaren kontserbazioaren alde guztiok batera arraun egin behar dugun unean. Nahiz eta etorkizuna ilun samarra ikusi, ilusioz eta gogoz, ea zerbait aldatzeko gaitasuna daukagun. Adibidez, aurki Eibarko Baso Biziak taldeak lurrak gureganatuko ditugu kontserbaziorako. Horrelako ekintzek ematen digute jarraitzeko gogoia, eta horrelako emaitzak lortzeko herritarrek deitzen ditugu gure ekimekin bat egin dezaten, guztiok batera Eibar eta gure inguruak naturaz gozatzeko eremu bihurtzeko.



Hogeita bost talde aritu ziren play-back lehiaketan

Sekulako arrakasta izan du ...eta kitto!-k aratosteetako antolatatu ohi duen play-back lehiaketak. LH 5. eta 6. mailetako ikaslez osatutako 25 taldek hartu zuten parte domeka arratsaldean Errebal Plazan egin zen lehiaketan, eta euren onena eman zuten Errebalen elkartu ziren ikusleen gozamenarako. Ez zen inor esku hutsik irten handik, baina hiru taldek saria eskuratu zuten. Mozorrorik onena Aldatzeko talde batek lortu zuen, interpretazio onenarena La Salle eta San Andreseko talde mistoak eta koreografia onena Iturburuko talde batek. ...eta kitto!-k eskerrak eman nahi dizkie parte hartu zuten guztiei, aurkezleari eta epaimahaiari eta Telepizzari, talde irabazleei pizza familiarrez eta izozkiz osatutako sariak ematearren.



Bulego berrituak estreinatu ditu ...eta kitto! elkarteak

Bost bat asteko lanen ondoren, joan den astean hasi ziren elkarteko beharginak bulegotik bertatik lan egingen, eta astelehenean, hainbat bazkide, instituzioetako ordezkari, elkarteko presidente-ohi, zuzendaritzakide, bezero, irakasle eta euskaltzalek bulego berrituak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten elkarteak antolatutako bisitan. ...eta kitto!-k 2004az geroztik du egoitza gaur egungo lekuan, Urkizun, eta Udalaren eta herritar, bezero eta bazkideen laguntzari esker egin ahal izan ditu sasoi berrietara egokitzeko eta jarduna baldintza duinetan betetzeko ezinbestekoak zituen lanok.

Ikasturteko azkeneko Barixakuak Jolasian egingo da gaur Urkizun

Arratsaldeko 17:00etan hasiko dira Urkizuko parkean Barixakuak Jolasianeko ikasturteko azkeneko jolasak. Ordubetez 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak egingo dira hainbat begiraleren laguntzarekin. Udazken eta negu partean herriko hainbat auzotan antolatatu ohi ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak jolasok, “ume eta gurasoen arteko berbetia euskaraz izateko eta guraso ezberdinen arteko harreman berriak sortzeko helburuarekin”, diote elkartetik. Hamabi saio antolatatu dira ikasturte honetan, lau Txaltxa Zelain, lau Torrekuan eta beste lau Urkizun. Gaurko jolasekin agurtuko dira aurtengoak.

Barreterapia-tailerrean izena emateko azkeneko egunak



Datorren eguenean, martxoak 2, Illunabarrian programaren barruan antolatutako barreterapia-tailerrean izena eman daiteke oraindik. Manex Beristain azpeitiarrak emango du tailerra ...eta kitto!-n bertan 18:30etik 20:30era. Izena emateko deitu (943200918) edo mezua bidali (elkartea@etakitto.eus). Izen-emateak 5 euro balio du (doan da elkarteko bazkide eta berbalaguntzat).



Egitarau osoa
deskargatzeko:



otsailak 24 (barixakua)



"Yerma"

La Dramática Errante (Bizkaia)

María Goicelaya

Drama euskaraz / 105'

Antzezleak: ANE PIKAZA,

AITOR BOROILA, LOLI ASTOREKA...

Zuzendaria: MARIA GOICELAYA

Gaur egun seme-alabak izateko ezintasunari aurre egin behar dioten emakume guztien hitzak biltzen ditu lan honek. Dramaturgia eta lengoia berrien alde eginez, eta poetika propioarekin, hausnarketa sortzeko arte bizia dakarkigu.

Coliseo (19:00)

otsailak 25 (zapatua)



"Arrainak bihotzean"

Mar-Mar Teatro (Bizkaia)

Leire Bilbao

Haurrentzako +3 urte / 50'

Antzezleak: IRENE HERNANDO,

ARITZA RODRIGUEZ, MAITANE SERRANO

Zuzendaria: GETARI ETXEGARAI

Kresal usaina duen herri politean bizi den Martik ez daki non bizi diren beldurrak. Aita marinela du eta, portuan haren zain dagoen batean, ekaitz batek uretara botako du. Horrela, nahitaezko bidaiari hasiko du itsas hondoa zehar.

Coliseo (17:00)

otsailak 27 (astelehena)



"Vida"

La Red Teatro (Gipuzkoa)

Drama / 60'

Antzezleak:

JUANMA CANO, MAITE LORENZO

Zuzendaria: MIKEL ARETIOAURTENA

Juan krisian dago bizitza aldatuko dion albiste bat jaso ondoren, parkeko banku batean. Maria ezagutu zuen banku berean, bizirik jarraitzeko indarra aurkituko du.

Coliseo (19:00)

martxoak 1 (eguztiena)



"Abundance"

Osa + Mujika

Dantza / 60'

Antzezleak: CRISTINA ALDASORO,

MADDI RUIZ DE LOIZAGA, CARLO OJEDA...

Musika: GARTXOT

Zuzendaria: OSA + MUJIKA

Dantzaren bitartez, bost interpreteak jabetza, eskusibotasuna, zeloak eta leialtasuna garatzen salatuko dira. Indarrean dirauen pentsamolde erromantikoa ezbalan jarri eta printze/printzesa ideia desagerrarazten ahalegintzen da.

Coliseo (19:00)



Etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

Eibarren gaur egun daukagun etxebizitzaren eskaintza oso zabala da. Bigarren eskuko etxebizitza zein berria nahi izanez gero, herrian ditugun inbiliarrietara jotzea besterik ez daukagu. Horietan diharduten profesionalak behar dugun informazio guztia emango digute: etxebizitzaren kokapena, orientazioa, metro karratuak, ezaugarriak, zein egoeratan dagoen, prezioa... Eskuartein daukagun gehigarri hau lagungarri izango zaizuela uste dugu. Eta, informazio gehiago nahi izanez gero, konpromisorik gabe joan zaitezke sektore horretako adituengana: zeuen premiei erantzuteko prest egongo dira.



www.aukera-inmobiliaria.com
943 12 13 95 Bidebarrieta 29



Iparragirre Ref. 2318

Babes ofiziala. 2 logela. Garajea.
Trastelekoa. Igogailua 0 kotara.
141.400€



Txaltxa-Zelai Ref. 2296

2 logela. Igogailua 0 kotara.
Trastelekoa. Irtegarritasun ona.
153.000€



T. Etxebarría Ref. 2216

3 logela. Igogailua 0 kotara.
Guztiz berritua.
205.000€



Bidebarrieta Ref. 2267

4 logela. 2 komun. Pisu altua.
Kalefakzioa. Igogailua 0 kotara.
290.000€



Errebal Ref. 2269

3 logela, 2 komun. Kalefakzioa.
Altzariz hornitua. 2 trasteleku.
260.000€



F. Calbeton Ref. 2291

3 logela. Altzariekin.
Guztiz berritua. Terrazarekin.
145.000€



Isasi Ref. 2287

3 logela, komuna, egongela,
sukaldea. 2 balkoi. Igogailua.
130.000€



Bustinduiarren Ref. 2256

2 logela. Balkoia. Trastelekoa.
Kalefakzioa. Eguzkitua, argitsua.
159.000€



Gestio inmobiliarioa:
alokairuak, erosketak,
salmentak, tasazioak,
kontratuak...

**ETXEBIZITZA,
GARAJE
eta LOKALEN
Salerosketa
eta alokairua**

Galdetu zure etxebizitzaren
Finantziatorako Bidea:
mailegu hipotekarioak,
pertsonalak...

Informazio Pertsonalizatua

32 urtetik goragoko esperientzia

Toribio Etxebarria, 1
943 20 03 58
fincas@euki.com
www.euki.com



API 323



Barrena 120.000 €
3 logela, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna. Berrituta. Igogailua 0 kotan.



Bidebarrieta Kontsultatu
Pisu altua. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela. Ganbara handia. Garajea (eta trasteroa). Etxerako sarrera zuzenarekin.



Ego-Gain Kontsultatu
Atiko bikaina. 3 logela (batean terraza, beste bat duplexa). 2 komun, sukalde-jangela. Garaje itxia aukeran.



Errekatzu 118.000 €
2 logelako etxe kapritxosoa. Guztiz berrituta.



Iparragirre 75.000 €
Pisu altua. Eguzkitsua, guztia kanpora begira. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna. Kalefakzioarekin.



Jardineteta 98.000 €
2 logela (bat balkoiak), egongela, sukaldea balkoiak, komuna, ganbara. Bizitzera sartzeko. Gas-kalefakzioa.



Mekola Kontsultatu
Eraikin berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea, egongela. 32 m²ko terraza. Trasteroa eta garajea. Aurten amaitzeko.



Miguel de Aginaga 115.000 €
3 logela, egongela, sukaldea, komuna. Trasteroarekin. Igogailua 0 kotan.



Romualdo Galdos 120.000 €
3 logela, egongela, sukaldea, komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Balkoia ganbararekin.



Romualdo Galdos 140.000 €
Pisu altua. Guztiz kanpora begira. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna. Ganbara. Igogailua 0 kotan.



Santa Ines 105.000 €
3 logela, sukalde-jangela, komuna. Guztiz kanpora begira. Kalefakzioa eta igogailua.



Sostoaarren 108.000 €
3 logela, egongela, sukaldea, komuna. Gazteentzako egokia. Bizitzera sartzeko moduan. Gas-kalefakzioarekin.



Txonta Kontsultatu
Atikoa terrazarekin. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna. Igogailua 0 kotan. Kalefakzioa.



Untzagako dorreak Kontsultatu
146 m². Guztiz berrituta. Terrazarekin. Igogailua 0 kotan.



Urki 112.000 €
2 logela, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna. Gas-kalefakzioa. Igogailua 0 kotan.



ZUMAIA
Etxebizitza bikaina. 3 logela, egongela terrazarekin, sukalde handia, 2 komun, ganbara. Garaje-plaza. Igogailua 0 kotan.



Etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

HIGIEZINAK
ARREGI
INMOBILIARIA
Errebal, 20

Tel./Faxa. 943 203 333 Mobila. 656 766 344
www.inmoarregi.com

IBAIONDO

INMOBILIARIA ETA
HOME STAGING ZERBITZUAK

T. 943 20 12 13

KOTA
INMOBILIARIA +
ARQUITECTURA

info@kotainmo.com
943 20 15 80 Bidebarrieta, 1

KOTA
INMOBILIARIA +
ARQUITECTURA



Eibarke Txikito Ref. 126

Erdigunean. Bizitzera sartzeko moduan. 2 logela. Garbararekin. **139.000€**



Isasi Ref. 240

Erdigunean. Bizitzera sartzeko moduan. 2 logela, 2 kometan, 2 balkoi. Igozailua. **215.000€**



Mekola Ref. 239

Gazteentzako aproposa. Eguzkitsua. Balkoiarekin. **159.000€**



San Juan Ref. 170

Erdigunean. Berrizteko. Altua eta eguzkitsua. 2 logela. Igozailua 0 kotan. **180.000€**



San Kristobal Ref. 196

Ipurua inguruan. Bizitzera sartzeko moduan. Eguzkitsua. Balkoia eta trasteroa. **109.000€**



Txaltxa-zelai Ref. 192

Garaje itxia. 17,45 m². **26.500€**



Urkizu / dorreak

Pise altua. Argitsu eta eguzkitsua. 3 logela, 2 kometan. Garajea aukeran. **Kontsultatu**



Wenzeslao Orbea Ref. 249

Amañan. Eguzkitsua. 3 logela. Balkoiarekin. Igozailua. **145.000€**



Mendi Jardunaldiak martxoaren 2an hasi eta 23an amaituko dira

Eibarko Klub Deportiboko mendi-batzordeak urtero antolatzen dituen Mendi Jardunaldiak ate joka ditugu honezkerok. Datorren asteko eguenean, martxoaren 2an, **Alex Txikon** mendizaleak ekarriko digun “Arimaren mendia” proiektioarekin hasiko da aurtengo edizioa.

Urtarrilaren 6an mendizale eza-gunak oxigenorik gabe Manaslura egindako lehen neguko igoera kontatuko digu. Sei alpinista nepaldarrek lagundu zioten gailurra zapaltzen 2016an Nanga Parbatren gauza bera lortu zuen mendizaleari. “Mendiaren arima” bideoa lagun duela, Txikonek muturreko esperientzia hori azalduko digu Coliseo antzokian, 19:00etan hasita, doan eskainiko duen emanaldian: “Mendiaren baldintzak, klima-aldaketaren ondorioak, muturreko hotza, estrategia aldaketa, talde-kudeaketa... Hainbat puntu zehaztuko dizkigu”, diote antolatzaileek.

Aste horretan bertan izango da Jardunaldiotako bigarren ekitaldia, izen handiko beste mendizale baten parte-hartzearekin. Domekan,

Hitzaldiak, tailerra, film-proiektzioak eta Negutrailak osatuko dute Jardunaldiotako egitaraua

martxoaren 5ean, Negutrail topaketa izango da **Irene Sarrionandia** beteranoarekin. Goizeko 08:30ean Klub Deportibotik hasiko den jardunean aipatutako mendi-korrikalariak “mendi-lasterketen munduan izandako esperientziak” kontatzeaz gain, berarekin gomendioak partekatzeko aukera izango da. Negu-

trailaren zazpigarren edizio hori ere doanekoa da, baina antolaketa lana errazteko izena ematea beharrezkoa da kalamuakorrikalaritadea@gmail.com helbidean. Ekitaldi horretarako korrika egiteko oinetakoak, mugikorra, zira, ura eta jateko zerbait eramatea gomendatzen da.

Hurrengo asteko eguenean, hilaren 9an, beste proiektzio bat izango da, ondorengo solasaldiaz lagunduta. “Westfjords: Islandia ezezaguna bizikletaz” izenburukoa eskainiko digu **Igone Mariezkurrenak**, hori ere 19:00etan hasita baina oraingo horretan Portaleko areto nagusian. Zenbaiten hitzetan “Europako azken bazter basatia denaren” irudietako proiektzio hori ere doanekoa izango da. Eta aurtengo jardunaldietako azken ekitaldia hilaren 22an izango da, Klub Deportiboko Mikel Larreategiren eskutik eskainiko den **“Mendiko App erabilgarriak”** hitzaldiaren bidez. Eguazten horretako jarduna Deporren bertan izango da, 19:00etan hasita eta tailerrean aplikazio batzuk errepasatuko dituzte, “errepideak eta mapak aurkitzeko, mendiak identifikatzeko, larrialdietan laguntza eskatzeko eta abar”.

Mendi Film-eko onenak

Dena dela, azken ekitaldi horren aurretik eta ohikoaren bidetik, Mendi-Tour-aren barruko bi film proiektzio izango dira Coliseon aurreko asteko martitzen eta eguaztenean. Emankizun horiek, jakina, Mendi Film-eko onena eskainiko digute. 14koan 22 minutuko “Creation Theory”, ordu erdiko “Spindrift” eta ordubeteko “Everest - Sea to summit” izango dira ikusgai. 15ean, bestalde, 3 minutuko “Iretargi”, 19ko “Egoland”, ordu erdiko “Into the ice” eta 46 minutuko “Doo sar” emanngo dira. Kasu bietan emanaldiak 18:30ean hasiko dira eta prezioa 5 eurokoa izango da.

Tentsio handiko Urvat-Donosti izango da jokoan gaur Orbean

Aurreko asteburuan Getxon 9-12 irabazi eta gero, Urvat-Urkitronik waterpoloko lehen taldeak garrantzi handiko neurketa jokatu du gaur, 21:30etik aurrera, Orbea kiroldegian. Getxoko norgehiagokan eibartarrak oso kontzentratuta egon ziren uneoro eta bide horretatik jo

beharko dute gaur Orbean duten erronkan. Senior mailako bigarren taldeak, bestalde, denboraldi bikaina dihardu burutzen eta azken jardunaldian ere garaile izan zen Easoren aurrean (15-5), partiduan parte hartu zuten kadeteen aportazio esanguratsuekin. Master mai-

lako taldea ere ondo ibili zen Gas-teizen, baina azkenean 12-9 amore eman behar izan zuen Waterpolo Donostiren aurrean.

Harrobiko taldeen artean denetarik izan zen Urvat-ekoen artean. Kadeteek lan bikaina egin zuten Iruñean, baina hirugarren zatian ihes egin zieten aurkariak, azkenean Waterpolo Navarrak 11-8 irabazteko. "Tartea txikiagoa izateko aukera ere izan zen", diote Urbatekoek. Infantiletan garaipen bidera itzuli ziren Urbatekoak, Maristas Bilbaori 10-6 nagusitzeko irakurketa bikoitzeke partiduan: "Defentsako lanak ez zuen parekorik izan erasokoa, jokoaren bisioan gehiago egiteko aukera bazegoelako". Azkenik, alebinetan, Orbeakoek asko gozatu zuten Donostiako Altzako igerilekuan.



Eibar FT-k Villarreal B hartuko du gaur, goiko postuei eusteko borrokan

Aurreko zapatuan Lugon ondo kostatako hiru puntuak eskuratu eta gero, Liga Smartbank-eko laugarren postuan dago gure herriko taldea. Aurretik ditu Levante puntu baka-rrera, Alaves bira eta Las Palmas liderra hirura. Atzetik ditu, bestalde, Granada bi puntura eta Albacete laura. Horiek dira une honetan igoera postuetarako lehian izaten diren sei postuen jabeak. Anxo Carron ere jokalaria bat gutxiagorekin jokatu behar izan zuen bigarren zati osoa Garitanoren taldeak eta bertan Javi Muñoz atera zioten txartel gorria errekurritu du klubak, Corpasek jaso zuen horiarekin batera. Aurretik



Eibar FT-k zaletuen laguntza ere izango du gaur Ipuruan jokatu den neurketan.

ere hegaletako atzelari guztiak min hartuta ditu Eibar FT-k eta azken partiduan ezkerretik jokatu duen Imanolek luze joko duen lesio larria izan zuen. Dena dela, horri guztiari aurre egin beharko dio Eibarko taldeak Villarreal-eko bigarren taldeari irabazi eta goiko postuen borrokan jarraitzeko. Partidua gaur jokatu da, 21:00etan hasita.

Emakumezkoak bihar Lezaman

1. Gorengo Mailan jokatu duen Eibar FT-k, bestalde, hamabost egun dituen partidua ofizialik gabe (aurreko asteburua eta oraingoa), biharko eguna aprobetxatzeko du lagunartekoa jokatzeko Lezaman Athletic-en aurka. Granadillaren aurkakoa prestatzeko neurketa eguerdiko 12:30ean hasiko da.

Eibartarren arteko partidua gaurko Astelena frontoiko pilota jaialdian

Oraingoan Katedralak gaur eta etzi zabalduko ditu ateak, gaur afizionatuen mailako pilotariek eta domekan profesionalen arloko jaialdiarekin. Gaurkoan, 19:00etan hasiko den jaialdian, lau partiduko jokatu dira, guztiak binakako modalitatean: hiru Udaberri Torneoak eta bestea Gipuzkoako Txapelketaren barrukoa. Azken horretan, gainera, infantil mailan, Eibarko Klub De-

portiboko bi bikoteen artekoa ikusi ahal izango da: Amillategi/Varona vs Del Rey/Gil. Partidu horren aurretik, kadete mailan, Eibarko Araolaza/Urkiaga bikoteak Hernanikoa izango du aurrez aurre. Hirugarren partidua helduen mailakoa izango da: Narvaiza/Agirresarobe Villabonako ordezkariaren aurka. Azkenik, kadeteetan, Azpilikue-ta/Gisasola villabonatarren aurka.



Caramanzana eta Ibarra Deporrek kadeteek 22-19 irabazi zieten Etxaniz eta Juaristi azkoitiarrei aurreko asteburuan.

Domekako jaialdian, bestalde, Binakako Txapelketaren azken jardunaldiko azken jaialdia bizi ahal izango da gurean. Hasteko, Promozio Binakakoan, Larrazabal/Eskiroz eta Exposito/Bikuña bikoteen artekoa ikusi ahal izango da. Jarraian, Binakako Txapelketaren barruko Laso/Imaz eta Ezkurdia/Martija bikoteen artekoa. Amaitzeko, Victor eta Eskuzak Dario eta Arbururi egingo diete aurre.



Irribarriak agur esan zieten frontoiei eguaztenezan Portalean eskainitako prentsaurrekoan.

Mecalbe Eibar Eskubaloiko talde nagusiek puntu garrantzitsuak izango dituzte jokoan

Azken jardunaldian Ipuruan jokatutako partiduetan ihes egin zizkieten puntuen bila irtengo dute oraingoan kanpora Eibar Eskubaloiko lehen talde biak. Aldez aurretik ere argi zuten zaila izango zutela, kasu bietan gainera, liderren bisita baliatzea punturik ateratzeko. Eta horrela izan zen: gizonetzkoen taldeak 22-32 galdu zuen Romo Broker-ekin eta tarte berarekin eman zuen amore emakumezkoenak (24-34) Aiala Zarautzen aurrean. Asteburu honetakoa beste kontu bat izatea espero dute eibartarrek: Andoni Perezek entrenatzen duen emakumezkoen taldeak bere au-



rretik duen Loyolaren kantxa bisitatuko du, "saikapenerako partidu klabea" izan daitekeen neurketan, eta Fernando Fernandezek mutilek, bestalde, saikapenean hainbat postu beherago dagoen Barakaldori egingo diote bisita azken porrota ahazteko asmoarekin.

Paula Calvo igerilariak garaipen bidetik jarraitzen du

Eibar Igerixaneko ordezkariak beste urrezko hiru domina eskuratu zituen aurreko asteburuan Getxoko Fadura kiroldegian jokatutako Euskal Herriko Neguko haurren txapelketan. 200 igerilaritiko gora izan ziren zapatu eta domekako jardunaldietan jokatutako txapelketa horietan, eta gure herritik Itsaso Castrillok lagundu zion Calvori. Paula Calvo 100 eta 200 bizkarreko probetan nagusitu zen, 200 estilokoarekin batera. Eta Itsaso Castrillok 400 libretan, 50eko tximeletan eta 200 estilokoan hartu zuen parte.

Gela propioetatik salto egiteko gonbidapena, toki guztietara zabaltzeko



Eibarko Martxoaren 8ko lantaldeak (...eta kitto! Euskara Elkartea, Arrate Kultur Elkartea, SD Eibar Fundazioa, Neledantza, Kaxa Mugimendu eta Sormen Gunea, Goi Argi, Pagatxa, Berdintasun Zerbitzua-Andretxea eta hainbat norbanako) prest dauka Emakumearen Nazioarteko Egunerako egitaraua, otsailaren 28tik martxoaren amaierara arte burutuko diren jarduera ugarirekin. Lantalde honek urtero gai bat adosten du, egitarauaren ardatz bezala, eta aurtengoa “Gela propioak eta ahalduntze espazioak” da.

Egitarauari buruzko informazio gehiago



Gai hori aukeratzeko arrazoia honela azaltzen dute antolatzaileek: “XX. mendearen hasieran Virginia Woolfek gai honen inguruan hausnartu zuen, emakumeon independentzia intelektuala ahalbidetzeko emakumeentzako ondasun materiala edota sinbolikoa aldarrikatuz. ‘Emakume batek, eleberririak idatzi ahal izateko, dirua eta gela propioa izan behar ditu’ zioen Woolf-ek, independentzia ekonomikorako eta sozialerako dei eginez. Emakume eibartarrok harro esan dezakegu dei horri erantzuten aitzindariak izan garela. Izan ere, 1951. urtean jada, eta 600 bazkiderekin, emakumeon elkarteetan aitzindari izan den Goi Argi-ren ateak zabaldu baikenituen, emakumearen prestakuntza integrala lortzeko asmoz”.

Egitaraua martitzenean hasiko da, 19:00etan Portaleko erakusketa aretoan inauguratuko den pintura erakusketa bikoitzarekin. Saioa Burutaran artistaren

“Laranjen artean” izenburupeko pintura-obrak eta Maite Rosende artistaren “Urtaroak. Ordu batetik hamarretara” liburuko 40 ilustrazio biltzen ditu erakusketak eta, inaugurazioarekin batera, artistek bisita gidatua egingo dute bertan. Ekitaldi hau Eibarko Udalak eta Portalea kultur etxeak sustatuta dago, Katapulta plataformaren kolaborazioarekin eta Kutxa Fundazioaren laguntzarekin.

Erraketistei buruzko solasaldia

Eguaztenean, berriz, 18:30ean hasiko da “Raquetistas. Gloria, presión y olvido de las pelotaris profesionales” liburuaren aurkezpen-solasaldia, Arrate Kultur Elkartean. Olatz Gonzalez Abrisketa eta Amets Castejana Fernandezen arteko elkarrizketak lehenengoak idatzitako liburua izango du protagonista.

Liburu horrek euskal pilotaren historia omisio batean oinarrituta dagoela erakusten du, egilearen arabera: “Erraketistena, estatuko

“Egitarauan emakume eibartarron askatasun intelektualerako, autonomia ekonomikorako, gure gaitasunen eta kontzientzia kritiko-feministaren garapenerako... tranpolinak ikustarazi nahi izan ditugu”.

gela propioak
ahalduntze espazioak

M8
2023
MARTXOAN
EN MARZO

MARTXOAK 8 LANTALDEA 2023

otsailak 28 / martxoak 26
ERAKUSKETA. EXPOSICIÓN
"Lanaren arloan"
"Gizakiak, Oinokoa, Interakzioa, Komunikazioa"
Nazioarteko Erakusketak
Argitaileak
PORTALEKO ERAKUSKETA GELA

asteazkena 1 / miércoles
LIBURU AURKEZPENA
PRESENTACIÓN DEL LIBRO
"Rozatzeak: Giza, eraginak eta aldatu
de las periferias profesionales"
ARRAZTE KULTUR ELKARTEA (18:30)

ostirala 3 / viernes
ZINE-FORUM
CINE-FORUM
"Mil veces buenas noches"
PORTALEKO ARIETO NAGUSA (18:30)

larunbata 4 / sábado
DANTZA IKUSKIZUNA
ESPECTÁCULO DE DANZA
"Kateak apurtzen"
Kaxa
UNTZAGA (13:15)

astelehena 6 / lunes
JARDUNALDIETAKO ANTEZELANA
OBRA DE JORNADAS DE TEATRO
"Lo que impide"
COUSEO (19:00)

martxoak 6 / martxoak 17
ERAKUSKETA. EXPOSICIÓN
"Ezazuak Bihotzak"
Nazioarteko Erakusketak
ERREAL PLAZA

asteazkena 8 / miércoles
MOBILIZAZIOERIN BAT EGINEZ
ADHESIÓN A LAS MOVILIZACIONES

larunbata 18 / sábado
TALLERIA TALLER
"No contás Pasar de nuevo por el corral"
Ezazuak: Nazioarteko Erakusketak
PORTALEA (09:00-13:30 eta 18:00-19:30)

larunbata 18 / sábado
JARDUNALDIETAKO ANTEZELANA
OBRA DE JORNADAS DE TEATRO
"Nabe berrak"
COUSEO (19:00)

asteartea 28 / martes
DANTZA IKUSKIZUNA
ESPECTÁCULO DE DANZA
"Gela propioa" / "Ora hainbatzuek propioa"
Nazioarteko Erakusketak
SOLASALDIA TEATROA
"Gela propioak eta Ahalduntze Espazioak" /
"Espacios Propios y Espacios de Empoderamiento"
Nazioarteko Erakusketak
GOIARGI (18:30)

martxoaren zineforuma
ESKAKO 12 ERKARTE ARTISTAREN LANAK
"Antzerkia, gure gela propioa"
ANDRETXEA

Jan San Martin Liburutegiaren bitartezko liburutegiaren bitartezko erakusketak
La Biblioteca Jan San Martin bitarteko erakusketak bitarteko erakusketak

KWA GOIARGI eta kitto! SOEIBAR

hiri guztietara hedatu eta Kuban, Brasilen eta Mexikon ere jokatu zen modalitate bat. Sei hamarkadatan jarraian, jatorri desberdinetako mila emakume baino gehiago, gehienak euskaldunak, pilotatik bizi izan ziren eta ospea eta errekonozimendua lortu zuten. Hala ere, jokoan zeuden proiektu nazionalak kantxetatik eta oroitzenapenetatik ezabatu zituzten”.

Garai hartako dokumentuen eta lekukotasun batzuen berrikuspen sakon baten bidez, oso bestelako kirol-panorama berreraikitzen du

liburuan, “kirola beti gizonen esparrua izan ez zela erakusteko”.

Dantza ikasteko saio irekia

Martxoaren 3rako, berriz, hitzordu bikoitza prestatu dute. Batetik, Pagatxa emakume elkartearen eskutik “Mil veces buenas noches”, Erik Poppe zuzendariaren filmari buruzko zine-forum saioa egingo da, 18:30ean Portalean. Eta Erreal Plazan, berriz, Kaxa mugimendu eta sormen gunean prestatu duten “Kateak apurtzen” izeneko dantza ikasteko saio irekia egingo da,

19:00etatik 20:00etara. Izan ere, dantza ikuskizuna Untzagan izango da hurrengo egunean, 13:15ean, eta ahalik eta jende gehien batzea da asmoa. Argitu dutenez, gizonen ere har dezakete parte, baina, “emakumeen atzean ipinita, beraiei protagonismoa emateko”.

Martxoaren 8an ohikoak diren mobilizazioekin bat egiteaz gain, Martxoaren 8ko lantaldeak antolatutako jarduerak hilabete osoan zehar garatuko dira eta horien berri ematen jarraituko dugu datozen asteotan ere.

LEIRE GARATE • Etxebizitza Sindikatua

“Laguntzen eskatzaileek biolentzia jasaten dute”

Deba Bailarako Kontseilu Sozialistak Etxebizitza Sindikatua jarri du martxan. Gasteizen sortutako sindikatuaren bideari jarraituz, etxebizitzaren inguruan dauden arazoak salatu, aurre egin eta herritarrei babesa emango diete. Horregatik, sindikatura batzeko deia egiten dute.

Leire Garate Deba Bailarako Etxebizitza Sindikatuko kideak azaldu digunez, sindikatuak dinamika jarri du martxan “Lanbideren kontrol burokratiko eta poliziala gelditzeko”. Horrela, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten lagunen egoera eta DBE-ren lege berriak zer dakarren azaldu digu.

Nolako prozesua jarraitu duzue Etxebizitza Sindikatua sortzeko?

Iaz Etxebizitza Asanblada aurkeztu genuen eta lan ezberdinak egiten ibili ginen urtebetez. Asanblada eta ekarpen ugari egin genituen eta, eztabaida-saio batzuren ondoren, 2023ra begira jauzi kualitatiboak emateko beharra zegoela ikusi genuen. Horregatik, Etxebizitza Sindikatua sortzea erabaki genuen; ez asanblada moduan jokatzeko bakarrik, baizik eta etxebizitzaren arloan gertatzen den problematika orotan esku hartu ahal izateko tresnak edukitzeko.

Antzeko esperientziarik ezagutzen duzue?

Hau beste sindikatu mota bat da, sozialagoa. Euskal Herrian, adibidez, Gasteizen badago bat. Urteak daramatza lanean eta oso lan ona egiten dihardute etxe-husteak gelditzen, funts-putrean jarduna salatzen eta bestelako ekin-tzak egiten.

Zeintzuk dira sindikatuaren funtzio eta helburu nagusienak?

Sindikatuaren autodefentsa sozialista antolatzen pauso kualitatiboa emateko jaio da. Besteak beste, etxebizitza arloan jasaten dugun ofentsibari aurre egiteko babesguneak sortzeko, beste mota bateko mundua sortzera bidean eraikuntza horretan hasi behar garela uste baitugu. Hau da, miseriarik egongo ez den mundua, guztiok kalitatezko eta doako etxebizitza duinak izango ditugun mundua.

Zertan datza Lanbideren jarduna salatzeke martxan jarri duzuen dinamika?

Azken urteotan, Lanbideek burutzen duen jardunarekin, laguntzak eskatzen dituen jendeak demaseko biolentzia jasaten du. Adibidez, prozesu burokratiko ikaragarri luzeak egin behar dira laguntzak eskatzeko; traba ikaragarriak jartzen dituzte; eskatzaile batzuek jazarpen salaketak egin dituzte; urteak daramatzate dokumentazio bera eskatzen, eta aurkeztu arren, berriz ere eskatze dute; intimitate urraketak gertatzen dira; Ertzaintza bidaltzen dute benetan etxean bizi zaren ikusteko; mugikortasunerako eskubide eza dago (laguntza jasotzen baduzu, urtean ezin zara 15 egun baino gehiago autonomia erkidegotik kanpo egon... Gure eskubideen aurkako ofentsiba garbia dela uste dugu.

Informazio
gehiago





“Etxebizitza Sindikatua autodefentsa sozialista antolatzen pauso kualitatiboa emateko jaio da”

Zein ekintza egingo duzue egoera horren aurrean?

Salaketa-kanpaina abiatu dugu hiru gauza salatzeko. Batetik, azken urteotan Lanbide burutzen ari den praktika bat: Ertzaintza bidaltzea DBE-a jasotzen dutenen etxetara, bertan bizi diren ikusteko. Bigarrenik, salatu nahi dugu mota honetako dirulaguntzek ez dutela pobrezia ezabatzeko helburua; eta izatekotan ere, hori gauzatzeko ezintasun erreala dutela. Eta hirugarrenik, abenduaren 22an onartu zen DBE-ren erreformak ez duela egoera aldatuko. Are gehiago, pertsona hauekiko kontrola areagotuko duela.

Zer dakar DBE-ren erreformak?

Erreformarekin, lehen legez kanpokoak ziren mekanismo batzuk legeztatuko dira. Legalki gutxi egin daitekeenez, dinamika honekin jendeari ezagutarazi nahi diogu Lanbide bezalako erakundeek gauzatzen duten funtzioa zein den. Alderdi burokratiko instituzionalak aho batez txalotu dute erreforma. Egia da laguntzen zenbatekoak igo egin direla, baina krisi egoera eta inflazioa kontuan hartuta, zalantzan jartzekoa da laguntzak benetan igo diren. Bestetik, irizpideak malgutu egin direlako

ere txalotu dute erreforma. Zerbait malgutu dira, baina orain arte Ertzaintzak egin duen lana egiteko Lanbiden inspektore taldea sortu dela (Ertzaintzak izan dituen eskumen gehiagorekin) eta kontrolak sarriago egingo direla ikusita, ez dakigu zer pentsatu. Gainera, erreformak ez du Ertzaintzaren presentzia kentzen.

Gaiari dagokionez, nolako datuak ditugu Debabarrenean?

Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, 2020an Deba bailarako biztanleen %5,7a pobrea zen. Harrezkero, pandemiak bideraturiko krisia zabaldu zela ikusita, besteak beste, gaur egungo datuak askoz ere okerragoak direla pentsa genezake (jendearen aurrezkiak murriztu dira, lanpostuak gehiago prekarizatu dira...). Gauzak horrela, biztanleriaren %1,7k bakarrik jasotzen du DBE-a, berez oinarrizko beharrak estaltzeko baliabideak ez dituztenei bideratuta dagoen laguntza dena. Bestetik, Jaurlaritzak 2020an argitaratutako txosten batean agertzen diren datuen arabera, pobrezia arriskuan daudenen %30ak ez du laguntza hau jasotzen, baina gero, jasotzen dutenen %53 ez da gai pobrezia egoeratik irteteko.

IKER EIZAGIRRE • Ernai

“Eibarko etxebizitzaren %15 bakarrik dago alokairuan”

Eibarko EH Bilduk ‘Etxebizitzaren problematikari alternatibak eraikitzen’ izeneko hitzaldia eskainiko du martxoaren 1ean, eguaztena, 18:00etan, Bilgunean (Bista Eder, 2). Hizlariak Iratxe Delgado LAB sindikatuko Ekintza Sozialeko kidea, Eraitz Saez de Egilaz EH Bilduko legebiltzarkidea eta Iker Eizagirre Ernaiko kidea izango dira.

Delgadok ikuspuntu sozialetik landuko du gaia, Saez de Egilazek erakundeen ikuspuntutik eta Eizagirrek gazteek egoera nola bizi duten azalduko du, besteak beste. Gainera, bertarutzen direnek ekarpenak eta galderak egiteko aukera izango dute.

Zein da, zehazki, etxebizitzaren inguruan dagoen problematika?

Arazoaren muina etxebizitzak eskuratzeko aukeretan dago. Izan ere, merkatutik kanpo ez dago etxebizitzarik lortzeko aukerarik, eta alokatzea edo erostea da geratzen zaigun aukera bakarra. Teorian, etxebizitza eskubide bat da, baina merkatu kapitalistak baldintzatzen du hori lortu dezakezun ala ez. Salerosteko merkantzia denez, zailtasun handiak aurkitzen ditugu eskuratzeko. Erakunde pribatuek, funts-putreek eta bankuek etxebizitzarekin espekulatzen dute, eta erakunde publikoek eta gobernuek ez dute neurriak hartzen hori ekiditeko. Prezioei dagokienez, 2008. eta 2016. urteen artean beherakada egon zen, baina harrezkero hazi egin dira.

Jabetzaren ala alokairuaren aldeko joera dago Euskal Herrian?

Hego Euskal Herrian etxebizitzaren jabetzaren kultura dago, baina merkatuak jartzen dituen baldintzen

araberakoa da hori. Etxebizitzaren salneurrian gorakada egon da, erosi edo alokatu nahi izan, baina etxebizitza gutxi dago alokairuan: Hego Euskal Herrian %16 eta Ipar Euskal Herrian, ostera, %40. Gainera, metropolietan gentrifikazio prozesuak gertatzen ari dira eta horrek gehiago zailtzen du hiriguneetan etxebizitzak eskuratzeko.

Gazteek nola bizi duzue egoera hau?

Kasua bereziki kezagarria da gazteontzat. Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, EAEn emantzipatzen direnen batezbesteko adina 30 urtekoa da (Ipar Euskal Herrian 23 urtekoa eta Europan 26koa). Bestetik, 15-29 urteko gazteen %55ek emantzipatu nahi du, baina ezin du. Laboral Kutxak egindako ikerketa batek dio 26-35 urtekoen %55 gurasoekin bizi direla oraindik. Arazoa oso handia da.

Zeintzuk lirateke horren arrazoi nagusiak?

Aipatutako etxebizitzaren egoera (prezioa, aukerak...) eta gazteen lan-baldintza prekarioak.

Urteak daramatzagu entzuten gazteentzat zaila dela etxebizitza duina edukitzeko aukera izatea, eta abar, baina azkeneko urteetan egoera okertu edo hobetu egin dela esango zenuke?

Egoera okertzen joan dela esango nuke. Eibarren agian ez da hainbeste igarri, baina Donostia moduko hiri baten argiagotzea ikusten da. Adibidez, ikusi da nola gazteek



Iker Eizagirrek gazteen ikuspegitik landuko du etxebizitzaren problematika mahai-inguruan. EKHI BELAR



bete diren inguruko herriak. Bestetik, esanguratsua da Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzak, ‘Gazte Lagun’, 35 urtera arte luzatzen direla. Ez dakit lehen zen zen gazte izatearen muga, baina sententzia da gero eta gehiago luzatzen dela, eta azkenean 40 urte edukitzera iritsiko garela gazte izaten. Jaurlaritzaren datuen arabera, gazteok soldataren erdia bideratu behar izaten dugu etxebizitzaren alokairua ordaintzeko (emakumeen kasuan gehiago); baina bestetik, Jaurlaritzaren helburua da soldataren %30 bideratu behar izatea etxebizitza ordaintzeko. Helburu hori lortzeko, Gipuzkoan, gazteen soldatak %100 igo beharko liriateke. **Eibarren nolako egoera bizi dugu etxebizitzari dagokionez?**

Eustat-en arabera, Eibarko etxebizitzaren %15 bakarrik dago alokairuan eta 1.018 etxebizitza hutsik daude. Bestetik, Eibarko 900 lagunek eman dute izena Etxebiden (Babes Ofizialeko Etxeak eskuratzeko Jaurlaritzak ematen duen zerbitzuan). Orduan, herrian 1.018 etxebizitza hutsik badaude eta 900 lagunek behar bat badute, modu batean edo bestean arazoa konpondu beharko litzateke. Etxebizitza huts guztiak agian ez daude bertan bizitzeko moduan, baina asko bai ziurrenik.

Hitzaldia eskaintzeaz eta aldarrikapenak egiteaz gain, alternatibak proposatuko dituzue?

“Gure aldarrikapen nagusia etxebizitza eskubide subjektiboa izatea da”

Gure aldarrikapen nagusia etxebizitza eskubide subjektiboa izatea da eta gizarte guztiak etxebizitza duina lortzeko aukera ziurtatuta edukitzea. Hori da idea, baina epe motzean gutxienez neurri batzuk hartu beharko liriateke. Alde batetik, alokairurako gehieneko kopurua zehaztu beharko litzateke (Ernainen iritzi, diru-sarreraren %15 bideratu beharko litzateke). Izan ere, kolektibo zaugarrienak dira gehienbat alokairuan bizi direnak. 2019an, EAEn, adibidez, 1.400 etxegabetzetik, 1.068 alokairuekin lotuta zeuden. Ikusten da hor arazoa badagoela. Bestetik, parke publikoa handitu beharko litzateke, hau da, etxebizitza publiko gehiago egon beharko liriateke. Eta gero, ikasle-pisuen kontua aztertu beharko litzateke. Izan ere, gazte askok kanpora joateko beharra izaten dute ikasketak egitera eta, nahiz eta gutxieneko nota eta ikasketak egiteko baliabide ekonomikoak eduki, etxebizitzaren kostu altuengatik batzuek uko egin behar izaten diote ikasketak horiek egiteari.



Gurasoei zuzendutako hitzaldi-sorta prestatu dute

Udaleko Gizartekintzak eta herriko Guraso Elkarteek antolatuta, gurasoei zuzendutako hitzaldi-ziklo berri bat egingo da otsailean eta martxoan, “Gurasoak Martxan” programaren baitan. Solasaldiak otsailaren 28an hasi eta martxoaren 29an amaituko dira eta Portaleko areto nagusian izango dira, 18:00etatik 19:30era. Lehen saioa, “Inteligentzia emozionala, teoria eta praktika” izenburukoa, martitzenean egingo da eta euskaraz izango da. Jarduera honetan parte hartzeko derrigorrezkoa da izena ematea, bai Gizartekintzan bertan (gizartekintza@eibar.eus helbidean), bai ikastetxe bakoitzeko Guraso Elkarteen bidez. Parte-hartzea modu presentzialean edo online egiteko aukera egongo da.

Aro berria Kvalvikarentzat



Kvalvika izan da David Karba musikari eibartarraren proiektua eta asteburu honetan aro berria hasiko du, izen berriarekin. Izan ere, jatorriko izenetik laburtuta datorren KVK izango da proiektuaren izen berria eta laster kaleratuko du EP-a.

Hain zuzen ere, EP berriaren abesti batzuk entzuteko aukera izango dugu gaur, 20:00etatik aurrera Ez Dok Zaizoi tabernan emango duen kontzertuan, Goroka Martinez de Lagos saxoarekin lagun duela. Ez da sarrerarik ordaindu behar izango, baina itsulapikoa jarriko dute, bakoitzak bere borondatez eman nahi duena botatzeko. Zaitzoiko emanaldiaren ondoren, 23:59ean, Beleko tabernan arituko da KVK, DJ Set saioa eskaintzen. Eta martxoaren 3an Ermuko London tabernan joko du, Trigger txelo-jolearekin batera.



Itsaspeko Bihotzak literatur aretorako izen-ematea

Familiei zuzendutako Itsaspeko Bihotzak Areto Literarioaren saioa martxoaren 6an egingo da, eta dagoe-neko zabalik dago izena emateko epea. Errebal Plazan egingo da, 17:30ean, eta 5 eta 8 urte bitarteko haurrak dituzten familiek hartu dezakete parte.

Areto literario honek genero-berdintasunaren gaia jorratzen du euskal haur-literaturaren bidez. Heziketzan oinarritutako ibilbide artistiko-pedagogikoa egingo da haur-literatura eta beste adierazpen artistiko batzuk bereziki kontuan hartuz (ilustrazioa, jostea, artisautza, ikus-entzunezkoak). Bertan parte hartzeko liburutegian izena eman behar da martxoaren 2a baino lehen, Udalaren webgunean dagoen formularioa beteta.



Ikuspuntu feminista duen umorezko tailerra

Altzoa alargunen elkarteak “¡Ay que me meo!” ikuspuntu feminista duen umorezko tailerra antolatu du biharko. Bea Egizabal formatzaileak emango duen saioa 10:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 19:00etara egingo da, Portalean, eta parte hartu ahal izateko aurretik izena eman beharra dago, 640 53 16 78 telefono zenbakira deituta.



Koplak, hip-hop eta musika elektronikoaren erritmora

Portalea Musika Klubaren eskutik, domekan 19:00etan Carmen Xia cadiztarraren kontzertua hartuko du Portaleko areto nagusiak. Tradizioa eta modernitatea uztartzen dituen artista horrek, bere rap sakon eta biribilarekin, Andaluziako folkloretik eta flamenkotik nahiz hip hopetik eta elektronikatik hartzen ditu soinua. Abesti sendoak eta gordinak aurkezten ditu, letra garratz eta malenkoniatsuekin. Domekakoa izango da Euskal Herrian emango duen lehen kontzertua. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Hasi dira “Jira bueltan” jolas-tailerrak zazpi eskolatan

Dagoeneko martxan dira HH eta LHko zazpi ikastetxeetan jangelan bazkaltzen gelditzen diren HH5 eta LH1 mailetako umeei eta beraien jantokiko hezitzaileei zuzendutako jolas-tailerrak. Tailer hauek Udaleko Euskara Arloak antolatzen ditu eskolan eta familian euskaraz jolastea sustatzeko. Badihardugu elkarteak prestatutako “Jira bueltan” bilduman jasotako kantak eta jolasak landuko dituzte Astixako begiraleek. Guztira 390 umek eta 30 hezitzailek hartuko dute parte, taldeka.



“Hitzen nahaste-borrastea” lehiaketa antolatu dute

Udaleko Euskara Zerbitzuak, euskaltegi biek (Udal Euskaltegia eta AEK) lankidetzan, “Hitzen nahaste-borrastea” izeneko lehiaketa antolatu du. Parte hartzeko, mezu barregarri, beldurgarri, erromantiko, erreibindikatazalea edo... asmatu behar da, gehienez pare bat lerrotan (25 hitz inguru) idatzi eta, ondoren, hitzak lekuz aldatu eta nahastu. Mezua zuzen jarrita eta nahastuta (bi moduetan) helbide hauetako batera bidali behar da: euskaltegia@eibar.eus, eibar@aek.eus edo euskara@eibar.eu (azken eguna martxoaren 12a izango da).

Herrixa Dantzan Elgetan



Domekan Herrixa Dantzan, dantza-tailer irekia eskainiko dute Elgetako Espaloia kafe-antzokian, 19:00etan. “Euskal Herriko plazetarako dantza berriak” proiektuko

dantzak ezagutu eta lantzeko saioa izango da eta, beraz, ez da ohiko dantzaldirik egingo.

Fernando Alonso argazkilariaren lanak YouTubean ikusgai

Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldeak bideo berria igo du YouTubeko bere kanalera (www.youtube.com/@argazki), taldeko kidea den Fernando



Alonsoren Kubako argazkiekin. Egile berberaren argazkiak, bestetik, Klub Deportiboaren tabernan daude ikusgai egunotan, hilaren amaiera arte zabalik egongo den erakusketan. Eta Portalea tabernan, berriz, Irene del Pinoren argazki-erakusketa dago.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

1	2		4	6	7		
6			7	8	9		
		9				5	
8	1	6					
				7	8	5	
	6				3		
		3	1	2			9
		8	9	3	6	7	

A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**


soluzioa

A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

							5
6			1	4			
	2		5	4	7		
		6				4	9
1	4		9	8		3	6
9	7				8		
			1	6	5		7
		3	2				4
7							

LABIRINTOIA



Otsailak 24 / Martxoak 2

BARIXAKUA 24

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 Jolasak
2 eta 8 urte bitarteko
umeentzat, begiraleekin.
Urkizuko parkea.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Yerma"
(La Dramática Errante).
12 euro (8,5 euro
Coliseoaren Laguna
txartelarekin). Coliseo.

MUSIKA

20:00 KVK (David Karba).
Ez Dok Zaizoi taberna.



ZAPATUA 25

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17:00 "Arrainak bihotzean"
(Mar-Mar Teatro). 5 euro.
Coliseo.

ZAPATUKO IPUINA

18:00 "Mamuak eta beste
auzokide batzuk", Nerea
Ariznabarretaren eskutik.
Portalea (areto nagusia).



DOMEKA 26

MUSIKA

19:00 Carmen Xía. Portalea
Musika Kluba. 10 euro
(7 euro Coliseoaren Laguna
txartelarekin). Portalea
(areto nagusia).



ASTELEHENA 27

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Vida" (La Red
Teatro). 5 euro. Coliseo.

MARTITZENA 28

BATZARRA

18:30 Eibarren Akebai
elkartearen batzar nagusia.
Errebal Plaza (bilera gela)..

ERAKUSKETA

19:00 "Laranjen artean"
(Saioa Burutaran) eta
"Urtaroak" (Maite Rosende)
erakusketen inaugurazioa
eta bisita gidatua. Portalea.



EGUAZTENA 1

HITZALDIA

10:00/12:00 "Deba arroko
lanbide tradizionalak",
Jose Maria Izagaren
eskutik. Sarrera librea.
Armeria Eskola.

HITZALDIA

18:00 "Etxebizitzaren
problematikari
alternatibak eraikitzen",
Iratxe Delgado, Erantz
Saez de Egilaz eta Iker
Eizagirrekin. Bilgunea.

AURKEZPENA

18:30 Liburu aurkezpen
elkarrizketatua:
"Raquetistas, Gloria
represión y olvido de las
pelotaris profesionales"
(Olatz González
Abrisketa eta Amets
Castrejana Fernández).
Arrate Kultur Elkarte.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Abundance"
(Osa+Mujika). 12 euro
(8,5 euro Coliseoaren
Laguna txartelarekin).
Coliseo.

EGUENA 2

MENDI JARDUNALDIAK

19:00 "Arimaren mendia.
Manaslu". Alex Txikonen
hitzaldia (elebidun). Doan.
Coliseo.



ERAKUSKETAK

Otsailaren 28ra arte:

- **"CUBA, EGUNEROKOAN
MURGILTZEN"** Fernando
Alonsoren argazkiak.
(Klub Deportiboa taberna).
- **IRENE DEL PINOren
argazkiak.**
(Portalea taberna)

Martxoaren 19ra arte:

- **"FILMETAKO ARMAK.
MUSEOAREN BILDUMA
ZINEMAN"**.
(Armagintzaren Museoa).

Martxoaren 26ra arte:

- **"BIZIA ZAINTZEN -
BASOIA. BIODIBERTSITATEA.
BIZITZA"**.
(Portalea).
- **"LARANJEN ARTEAN"**
(Saioa Burutaran) eta
"URTAROAK" (Maite
Rosende).
(Portalea).

Martxoaren 31ra arte:

- **"EIBARKO SOZIALISTEN
125 URTEAK"**.
(Herriaren Etxea).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

24an (BARIXAKUA)
ANTZERKIA
20:30 / Ermua Antzokia
"Mundos para lelos"
25ean (ZAPATUA)
KONTZERTUA
20:00 / Lobiano Kulturgune
Nirek Mokal & His Boogie
Messengers

DEBA

24an (BARIXAKUA)
KONTZERTUA
22:00 / Kultur Elkarte
Meteo (Miren Narbaiza
eta Itziar Garaluce)

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **25ean:** 19:30, 22:30
- **26an:** 20:00

“El triángulo de la tristeza”
UMOREZKOA



2022/Suedia/149'
Zuzendaria: Ruben Ostlund
Aktoreak: Harris Dickinson,
Charibi Dean, Zlatko Buric
Komedia beltza / Biziraupena

2 ARETOA

- **25ean:** 19:45, 22:30
- **26an:** 17:00, 20:00
- **27an:** 20:30 (1 Aretoa)

“La novia de América”
UMOREZKOA



2023/Espainia/99'
Zuzendaria: Alfonso Albacete
Aktoreak: Miren Ibarguren,
Gines G° Millan, Pol Monen
Komedia / Familia gorabeherak

ANTZOKIA

- **25ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **26an:** 17:00 (1 Aret.), 20:00
- **27an:** 20:30 (2 Aretoa)

“Irtati”
FANTASIA



2022/Euskal Herria/114'
Zuzendaria: Paul Urkijo
Aktoreak: Edurne Azkarate,
Eneko Sagardoy, Itziar Ituño
Erdi Aroa / Mitologia / Abentura

ANTZOKIA

- **25ean:** 17:00 (2 Aret.)
- **26an:** 17:00

“Mi querido monstruo”
ANIMAZIOA



2022/Txina/99'
Zuzendaria: Janning Huang
**Komedia / Erredentzioa /
Uhartea**



ASKASIBAR F. Calbetón, 15
943 20 19 42

SPORT TO THE PEOPLE **INTERSPORT**

2. ALEA

1€

Otsailaren 23tik 28ra

FUNEUSKADI
Grupo Funeus

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO EIBAR

TANATORIO ERREKATONDO
ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27

Elbarko bulegoa: Iñdabarrieta, 20

Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Ernuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar - Elgoibar - Ernuak - Bilbo - Barakaldo - Leioa - Getxo - Sestao - Portugalete - Santurtzi - Basauri - Galdakao

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zzoorriionaakk, **IZAN!!** Bixar 6 urte beteko dozuz-eta. Musu pillo bat famelixaren partez. Segi irribarre horrekin. Asko maite zaittugu.



Zorionak, **XABI**, mutil haundi, eguaztenian 6 urte bete zenduaz-eta. Jarraitu horren alai, asko maite zaittugu. Patxo haundi bat!



Zorionak, **AITOR**, astelehenian 9 urte beteko dozuzelako! Musu mordoxka bat zuretzat, maittia!



Zorionak, **ALBA** Cid Velasco, hillaren 29xan 7 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **JULE**, eguaztenian 4 urte bete zenduaz-eta! Patxo haundi bat, bitxito, etxekuen partez!!



Zorionak, **ODILE!** Astelehenian 11 urte egingo dozuz-eta! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **IBAI**, martitzenian 5 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat amamen partez.



Zorionak, **XABAT**, bixar 5 urte beteko dozuz-eta. Musu pillua famelixakuen partez. Ondo pasa zure egunian!



Zorionak, **JON!!!!** Astelehenian 8 urte beteko dozuz-eta. Musu potoluak famelixakuen eta, batez be, Maialenen partez!



Zorionak, **IÑAKI!** 3 urte haundi gure superheroiak! Jarraitu beti bezain alai. Musu haundi bat danon partez.



Zorionak, **ANDER!** Astelehenian 3 urte beteko dozuz-eta. Tarta haundi bat jango dogu ospatzeko. Musu pillua famelixaren eta Julenen partez.



Zorionak, **JON**. Hurrengo martitzenian 7 urte, mutil haundi! Patxo haundi bat famelixaren partez.

Amets Martin Bastida

1. URTEURRENA
2022/02/22

“Beti izango zara gure bihotzen martxa markatuko duen musika alai”

- ZURE BESTE ERDIA -

M^a Teresa Larrañaga Balzola

2023/02/20

“Maite ditugunen argia ez da sekula amatatuko. Gurekin izango zara betiko”

- ZURE FAMILIA -

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Etxebizitza alokagai Deban uda eta udaberri sasoiari (hila-beteka edo asteka). 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi eder. Bista paregabeak. Igogailua 0 kotatik. 657795876 (arratsalde).
- Eibartar gazte batek baserria erosiko luke Eibarren. Edozein egoeratan dagoelarik, ikusteko prest dago. 688631803.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan. 2 logelakoa. 652532589.
- Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Eibarren (bestela, Ermuan, Elgoibarren edo Sorluzen). 672860969.
- Senar-emazteek pisua hartuko lukete alokairuan Eibarren. Erreferentziak. 667060292.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 632072254.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 641456514.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 602490595.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Inter. 632642320.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 602012075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauze ere. 605402030.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 640881328.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 600836168.
- Mutila eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko eta sukaldari edo pintore-laguntzaile bezala. 640796001.
- Emakume eskalduna eskaintzen da zainketa lanetarako (agiri sozio-sanitarioarekin) eta etxeko lanak egiteko. Autoarekin. 657794652.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 608401590.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin eta baita ospitalean ere) eta etxeko garbiketarako egiteko. Orduka. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (agiri sozio-sanitarioarekin) eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. 643398596.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta taberna edo jatetxe batean lan egiteko. 632419944.
- Neska eskaintzen da arratsalde umeak zaintzeko. 649025614.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin) eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko (agiri sozio-sanitarioarekin). 642855788.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 613432184.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 685724861.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia erizain bezala. 613744564.
- Kanpoko etxe-zerbitzuan esperientzia handiko neska eskaintzen da. Euskal sukaldaritza tradizionala eta osasuneko. Mendekotasun-egoeran daudenentzako Arreta teknikari tituluarekin. 699473761

4.2. Langile bila

- Neska euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 699024156.

- Ilea zaintzailea behar da jor-nada osorako. 619928881.
- Dendaria behar da modadenda batean. Arratsaldeko ordutegian. Laga curriculuma Closet dendan (Estaziño, 10).
- Emakumea behar da Eibarko denda batean. Jornada erdiz, arratsalde, martitzenetik zaptura. Bidali curriculum: eibartienda@gmail.com.
- Langilea behar da interna moduan pertsona bat zaintzeko. 688678934.
- Ilea zaintzailea behar da estetikien edo/eta azazkaletan eta pedikuran esperientzia duena behar dute. 686256940 (whatsapp).

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestazeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Organo elektronikoa salgai. Vals, tango, swing... ermitoak. 400 euro. 943752480..

6.4. Bestelakoak

- Etxerako altzarriak behar ditut (ohea, sofa, armairuak...). 632310865.

ATE IREKIAK



MARTXOAK 1 GOI MAILAKO ZIKLOAK

17:00



IKASTETXE PUBLIKO DOAKOA

GOI MAILAKO ZIKLOEN ETA ESPEZIALIZAZIONE ESKAINTZA:



- EGOKITZAPEN FISIKOA
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA



- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- GARRAIO ETA LOGISTIKA



- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

+ Administrazioa eta Finantzak eskaintza partziala arretsaldez



- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA

www.uni.eus

Otadi Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | Idazkaritza@uni.eus | @uni.eus

PLAZA MUGATUAK

Izena ematea ezinbestekoa da eta baita onarpena jasotzea ere.

IZEN-EMATEAK

Martxoaren 2ra arte

info@lurgaina.org

Adierazi parte hartzaileen izen-abizenak, adinak eta telefono bat

Zailtasun ertaina-handia. Malda handia eta otadiak. 12 urtetik gorakoentzat.

– 09:30 1.Topagunea:
Eibarko Kiub Deportiboa (T. Etxebarria, 16)

– 10:00 2.Topagunea:
Amaña Ikastetxea (Artegietea, 5)

ANTOLATZAILEAK



zuhaitz eguna

martxoak

4 EIBAR

bertako
zuhaitzak
landatzea





**AUKERARIK
ONENA,
ETORKIZUNA
DUENA**

Zatoz ate irekietara!



ArmeriaEskola^x

